



2014 / 15 IKASTURTEA

INFORMAZIOA

Tfnoa / Faxe : 944378409 / 944383537
688661017

CEP MUKUSULUBA LHI

MURILLO 20 48902 BARAKALDO

E-mailak: muku@mikusulubalhi.net

Web orria: www.mikusulubalhi.net

Guraso agurgarriak:

Beste urteetan bezala, eskolako informazio orokorra emateko liburuxka egin dugu. Bide batez, aholku eta arau batzuk eman nahi dizkizuegu, eskolako jarduerak ahalik eta egokien garatzeko garrantzitsuak direnak. Ezinbestekoa iruditzen zaigu berauek zaintzea, denen onerako baitira.

Gogoratu nahi dizuegu prest gaudela zuen iritziak eta kritikak jasotzeko. Zalantza edo arazoren bat baldin baduzue, tutore edo zuzendaritza taldearekin komentatu. **Guretzat garrantzi handikoa da gure lanari buruz duzuen iritzia.**

Besterik gabe, eskerrik asko hemen lan egiten dugun guztion partez.

Edukia :

OOG	2
Lan egiten dugunok	3
Ikasleen egoera fisi-	4
Proiektuak	4
Eskolaz kanpoko	5
Jantokia	6
Arautegia	8
Egutegia	9
Euskara	10





Dakizuenez, eskolako OOG (Ordezkapen Organo Gorena) irakasle, guraso, irakasle ez den pertsonala eta Udaletxeko ordezkarri batez osaturik dago.

Bertan, eskolako bizitza arautzen duten erabaki nagusiak hartzen dira eta sortzen diren arazo eta beharrei erantzuna ematen zaie. Estamentu guztien esku hartzeaz, eskolako irakaste kalitatea hobetzen saiatzen da. OOG biderik egokiena da eskolako jardueretan parte hartzeko.



GURASOAK

Jesus Lozano
Jose Martinho
Isabel Garcia
Lorena Cerro
Sela Galan
David Díez
Inma Alvarez
Pilar Martin de Hijas
Mónica García
Lorena Cuevas
Aitor Zugasti
Leire Pinos
Edurne Rios

IRAKASLEAK

Bego Iriondo
Tere Laka
Lourdes Olaetxea
Nekane Zorrilla
M^a Angeles Alicante
Ricardo Arana
Enrique Lekuona
Maite Larruzea
Agurtzane Martitegi
M^a Carmen Gonzalo
M^a Carmen López
Chelo García
Mertxe González

EZ IRAKASLEA

M^a Carmen Fernández

*Guztion lana da
gure eskola
eraikitzea*

UDALETXEA

Raquel Olalla

Eskolan lan egiten dugunok

HAUR HEZKUNTZA	A	B
2 URTE	M. Angeles Calzada Aitana Kareaga	Leire Hernández Ainhoa Niño M. Angeles Alicante Silvia Indias
3 URTE	Susana Diez	Marta Iglesias
4 URTE	M ^a Carmen Manrique	Ana Gutiérrez
5 URTE	Felipe San Martin	Maite Larruzea
LEHEN HEZKUNTZA	A	B
1. MAILA	Luzma Azkona	Enrique Lekuona
2. MAILA	Ismael Varela	Inmaculada Medina
3. MAILA	Mertxe González	M ^a Carmen Gonzalo
4. MAILA	Nekane Zorrilla	Jose Luis Fernández
5. MAILA	Conchi Rodríguez	Karmele Sánchez
6. MAILA	Blanca Ribeira	Ricardo Arana
GORPUTZ HEZIKETA	Agurtzane Martitegi	
INGELESA	Chelo García	Maite Zamakona
MUSIKA / ALE	Ruth Sedeño /Oiane Torrontegi	
PTE/AHOLKULARIA	Txelo Martin	Nagore Etxeandia Elixabet Pérez
HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTAK	M ^a Jesús González–Goizane Menendez	
ALE-LOGOPEDIA	Oiane Torrontegi	
LIBURUTEGI PROIEKTUAREN ARDURADUNA	M ^a Carmen López	
ZUZENDARIA	Begoña Iriondo	JANTOKIKO ARDURADUNA
IKASKETA BURUA	Teresa Laka	Mentxu Sánchez
IDAZKARIA-EGA/AKA	Lourdes Olaetxea	
ATEZAINAK	Begoña Bravo	M ^a Carmen Fernández
JANTOKIKO LANGILEAK	Paki, Izaskun, Leire, Mar, Begoña, Elena B., Elma, Edurne, Lorena, Lorea, Arantza, Javi, Amaia, Ana, Silvia, Ainhoa, Tamara, Aitana., Olatz, Elena D, Ainara, Ixone	

Ikasleen egoera fisikoa

Eskolako ikasle guztien onerako eta kutsadura ekiditeko, gogorarazten dizuegu sintoma hauek agertzen direnean ikaslea ezin dela eskolara etorri:

Sukarra

Beherakoa

Aho infekzioak

Konjuntibitisa

Hesteetako parasitosisia

(zizareak)

Era berean, hauexek dira gaixotasun batzuentzako



bajaldiak:

Eskarlatina: medikazioa hasi eta 7 egun.

Hazikurriak: 9 egun

Hepatitis: analisiak normalizatu arte.

Errubeola: medikazioa hasi eta 6 egun.

Bestelako egoerak

Batzuetan ikasleak espezialista desberdinekin ibiltzen dira, eta haiek galdeketa eta informazio desberdinak eskatzen dizkigute. Horrelako eskaerarik izanez gero, familiak zuzendaritzan egin behar du eskaera, eta han erabakiko da zein irakasle edo talderi dagokion erantzuna ematea.


Proiektuak

1. Hizkuntza Normalkuntza Proiektua:

Proiektu honen barruan irakasle-riaren Euskara arloan prestakuntza sakontzeari ekingo zaio, bide batez, eskolaren ingurua gero eta euskaldunago bihurtzen saiatuz. Hemen Euskegiñe eta berak prestatzen dituen jolasak sar ditzakegu, baita "Irratia" ere.

2. AGENDA 21

Ingurumenaren inguruan, eskolan egiten diren ekintzak. Gaia: Biodibertsitatea




Eskolaz kanpoko ekintzak

Urtero bezala, urrian hasten dira Guraso Elkarteak antolatutako eskolaz kanpoko ekintzak. Ekintza hauekin eskolako heziketa eskaintza zabaldu nahi dugu, eta horregatik haien mamia eta helburuak, eskolakoekin batera joan behar direla pentsatzen dugu.



Hauexek dira aurtten ditugun aukerak:

Xakea	Liburutegia
Txikirritmoa	Haur Karatea
Futboltxoa	Goizeko gela
Street-dance	Lo-kuluxka
Irristaketa	
Saskibaloia	
Gimnasia erritmikoa	



Gurasoek ere badugu guretzat propio egiten den ekintza: GURASO ES-KOLA. Udaletxeak eskaintzen duen zerbitzua da, eta astero egiten diren hitzaldien bidez egiten da. Hitzaldiak aditu batek ematen ditu eta gure seme-alaben heziketan laguntzeko pentsatuak daude (auto-estimua, ze-loak, heziketa ereduak... Adibide batzuk dira)

Eta, gainera, umeekin batera, **Merkatu txikian** hartzen dugu parte.



Beste ekintza berri bat sar daitekeela pentsatzen baduzu, Guraso Elkartean komentatu.

Ikusten duzuen bezala, ekintza hauek guztiak eta beste batzuk Guraso Elkarteok bere gain hartzen dituzte eskola aberasteko ideiaz.

Guraso Elkarteari esker diru-laguntza batzuk lortzen ditugu goiko ekintza horiek, (kirolak, irteerak, koloniak, Olentzero eta beste jaiak) ordaintzen eta antolatzen laguntzeko.

Baina, beti bezala, nahiz eta eskolan jende pilo izan, lan hauek egiteko ez dira hainbeste. Horregatik, eskola

interesatzen bazaizu, gero eta aurrera-tuago ikustea gustatzen bazaizu, zuen seme-alabak zer edo zer desberdina egitea nahi baduzu... ez pentsa hainbeste: Anima zaitetz eta pasatu Guraso Elkarte gelatik laguntza eskaintzera.

Zure zain gaude.

**Guraso Elkarte
"Mendikoa"**

Telefona: 944781139
ampa@gmail.com

Jantokia

Gure ikastetxean jantokia kudeaketa zuzeneko da, hau da, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen du.

Atal honetan jantokian ezarri diren arauen laburpena egin nahi dizuegu.



Ereziboak hilaren 2an pasatuko dira hilero.

✘ Jantokiaren ordutegia, **13:00etatik 15:00etara** izango da, eta umeek 2 txandatan jango dute:

1. Txanda, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailakoek. 2 urtekoak 12:30ean hasiko dira.

2. Txanda, 4., 5. eta 6.ekoek.

✘ Kuotak hauexek izango dira: Ohiko bazkalkidea: **4,60 € eguneko**. Noizbehinkako bazkalkidea: **5,20 € eguneko**.

✘ Ohiko bazkalkidea izateko, astean gutxienez 4 egunetan erabili behar da jantokia.

✘ Oso beterik dagoenez, ez da ziurtatzen noizbehinkako bazkalkideentzako lekua. Behar izatekotan, beti aurrez eskatu. Batzuetan, lekua izanda ere, ezin izango dute gelakoekin bazkaldu.

✘ Jantokiko erreziboa, esan diguzuen Banku edo Kutxatik pasatuko da. Hark errezibo bat bueltatzekotan, eskolako zuzendaritzan ordaindu beharko duzue erreziboa gehi bueltatzeagatik banaketxeak kobratzen duen zatia hilabetea bukatu baino lehen. Erreziboak bitan baino gehiagotan bueltatzekotan, Jantokiko Batzordeak OOGri jakinaraziko dio,

hark behar diren neurriak hartzeko.

✘ Hurrengo taulan hilabete bakoitzean ordainduko dena agertzen da.

HILABETEA	5 egun	4 egun
IRAILA	69 € 3ur/46€	
URRIA	115€	92 €
AZAROA	87,40€	69 €
ABENDUA	69 €	55,20 €
URTARRILA	82,80 €	64,40 €
OTSAILA	78,20 €	64,40 €
MARTXOA	82,80 €	64,40 €
APIRILA	64,40 €	50,60 €
MAIATZA	92 €	73,60 €
EKAINA	69 €	

✘ Huts egiteak zuzendaritzan jakinaraziko dira, bai pertsonalki, bai telefonoz. Hutsegitea **astebetekoa edo gehiagokoa bada, beti ere 48 ordu lehenago abisatuta, egun horietako %50 itzuliko da. Bekadunei ez zaie dirurik itzultzen.**

✘ Monitore eta sukaldeko langileak, enpresa gastronomikoak (EUREST) kontratatuturik daude, eta honek, ikasleei medikazioa ematea debekatzen die.

✘ Ume batek menu berezia behar badu, gaurkotutako mediku-ziurtagiria aurkeztuta baino ez litzaioke emango. Beste ikasle guztiek eguneroko menua jango dute.

✘ Ume batek epe batean ez badu ezertxo ere jaten, gurasoekin hitz egingo dugu, arazoa bideratzeko. Hala ere, jan barik jarraitzen badu, ezin izango du jantokia erabili.

✘ Zuen seme-alabak eskolatik ateratzen badituzue: **1. txandan jaten badute ezin izango dira itzuli. 2. txandakoak baldin badira itzuli ahal izango dira 14:00etan baino lehenago egiten badute.**



Jantokia eskolak eskaintzen duen zerbitzua da, eta borondatezkoa da. Jantokia erabiltzek bere funtzionamendu arauak onartzea dakar ezinbestean.

Jantokiko arduraduna **Mentxu** da. Berarekin hitz egiteko edozein egunetan egin dezakezue, bisita zehaztu ondoren. Telefonoa: **94.437.84.09**

Zenbaki bera erabil dezakezue edozein mezu emateko.

Arautegia

Guraso agurgarriak:

Urtero bezala, eskolaren funtzionamendu arauak gogoratzen dizkizuegu:



1. Gogorarazten dizuegu goiz eta arratsaldeko ordutegia honako hau dela:

Astelehen, astearte, ostegun eta ostiralean: 09:00 - 13:00 eta 15:00 - 16:30.

Asteazkenetan: 09:00 - 13:00. Jan-tokia 13:00etatik 15:00etara.

Ordutegi honetatik kanpo ikastetxeak ez du ikasleengan erantzukizunik. Eskolaz kanpoko ekintzaren bat egiten dutenak antolatzailearen erantzukizunpean egongo dira.

2. Eskolara etortzea bezain garrantzitsua da guztion puntualtasuna. Barakaldoko Udaletxeak martxan jarri duen "Eskola-absentismoa programa" barruan, eskolarako hutsegiteak eta behin baino sarriagotan berandu heltzeak ere abisatzeko derrigortasuna ezarri da.

3. Berandu etorri gero edo lehenago irten behar izanez gero, atezainak hartuko du umea. **Ez duzue geletara igo behar.**

4. Irakasleei edozein abisu emateko idatziz egin ezazue bai agendaren bidez bai umearen bidez. Eman dizkizuegun ereduak erabili ditzakezue.

5. Umeen bila etortzen zaretenean, ez sartu eskolara bost minutu lehenago arte (nahiz eta ateak zabalik aurkitu).

6. Eskolaz kanpoko ekintzetara umeak ekartzen badituzue, utzi beste ikasle guztiak ateratzen, eta gero zuek sartu.

7. Lagundu patioak garbi mantentzen. Ez bota paperik ezta beste hondakinik lurrera. Gogoratu **DEBEKATURIK DAGOELA** eskola osoan erretzea.

8. Bisita ordutegiak:

(edo beste ordutegian, irakaslearekin adostuz gero)

ZUZENDARITZA:

goizez 09:15— 13:00

TUTOREAK:

ostegunero 13:00— 13:30

Arau hauek errespetatzea daukan garrantzia ulertu duzuelakoan agurtzen zaituzte.

ZUZENDARITZA TALDEA

Asteazkenetan goizez bakarrik egiten dugu: 13:00 arte. Jantokia 15:00 arte.

IRAILA	9 29	Klaseak hasiko dira, 09:00etatik 13:00etara. Klaseak goiz eta arratsaldez.
URRIA		
AZAROA	24	Jai eguna
ABENDUA	8 22	Jai eguna. <i>Azken eguna eta oporren hasiera</i> <i>(09:00 - 13:00) Jantokia 15:00ak arte.</i>
URTARRILA	7	Klase hasiera.
OTSAILA	16-17-18	<i>Inauteriak</i>
MARTXOA	19-20 30-31	<i>Jai eguna eta zubia</i> <i>Aste Santuko oporrak.</i>
APIRILA	1-12	<i>Aste Santuko oporrak.</i>
MAIATZA	1	Jai eguna
EKAINA	1-19 19	Klaseak 09:00etatik 13:00etara izango dira. Jantokia 15:00 arte. <i>Azken eguna eta oporren hasiera.</i>

Irakasleekin hitz egiteko: Ostegunean, 13:00etatik 13:30etara

Euskara

Guk euskaraz!
Zuek, zergatik ez?



Aurten ere lanean jarraituko dugu Hizkuntz Normalkuntza Proiektuan. Gure helburua zuen seme-alabak euskaraz bizi eta ondo pasatzea da. Prozesu honetan zuen laguntza ezinbestekoa da.

Nola motibatu ahal dut nire semea-alaba?

Irakurkizunak

- ✗ Familiaren hurbileko pertsoneri euskaraz hitz egitera animatu
- ✗ Animatu ere neba-arrebak edo eta lagunen artean euskara erabiltzera.
- ✗ Euskararen kontsumo kulturala bermatu: liburuak, bideoak, EITB, antzerkiak...

Zelan lagun diezaioket euskara ez badakit, eta liburuan ipintzen duena ez badut ulertzen?

- ✗ Irakurketan laguntasuna ematen.
- ✗ Euskaraz galdetzen edo erantzuteko esaten eta azaldu digunaren laburpen txiki bat gazteleraz emateko eskatuz.
- ✗ Gai batzuetan ez da beharrezkoa euskara ezagutzea: matematika, beste hizkuntzatan, ...



Egoera hau arazo moduan barik, hobetzeko aukera moduan ikustean datza gakoa.

Aprobetxa ezazue egoera hau zuen euskararen ezagumendu maila hobetzeko.

Euskara gutxi dakit, ona da umearekin erabiltzea?

Dakizuen euskara erabiltzea onuragarria da umearen motibaziorako.

EUSKARA DA EUSKALDUN EGITEN GAITUENA.